



TXIKITTO!

2025eko ekaina 233. zenbakia

**Sanjuanak 2025
Gora bihotzak!**



AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	SANJUANAK.....	10
IKASLEEKIN	4-5	DENBORAPASAK	11-12
BERRIKETAN		LEHIAKETA	13
IKASTETXEETAKO.....	6-7	ZER IRAKURRI	
BERRIAK		BITXIKERIAK.....	14
BANAKIXAN.....	8	IPUINA.....	15
BANAKIXALA		ZU BAI MARGOLARI ..	16
GURE NAGUSIEKIN	9		
BERBETAN			



Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarte
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Maketazioa
Ana Aizpurua

Azaleko argazkia
Eibarko Udala

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Zergatik heltzen dira hain altu informatikoak?
Hodeian lan egiten dutelako.



Nola deitzen dio cowboy batek
bere alabari?
Hiiiiijaaaaaaa!!!

Zein da landarerik beldurgarriena?
Banbuu!



Zein da fruta barregarriena?
Laranja-ja-ja-ja.



Aita, nondik ateratzen da “portzelana”?
Ba, “portze-arditik”, Jaimito.



Oporrak hartzeko gogoz

Ikasturte amaierara iritsiko gara laster eta, aitortu digutenez, San Andres eskolako ikasleak oporrak hartzeko irrikitan daude. Ikasturtea polita izan da, asko ikasi dute eta baita ondo pasatu ere, baina heldu da lagunekin kolean jolasten egoteko, hondartzara edo igerilekura joateko, edota bidaiatzeko unea, eta laukote honek badu horretarako gogoia. Hori bai, oporrak hasteko, San Juan jaiak ospatuko ditugu lehenik. Milaka ekintza edukiko ditugu herrian, baita barrakak ere, eta oso egun bereziak izango dira eibartarrontzat.

**BIDEOA
YOUTUBEN**





DI-DA batean

- 1- Zein da zure barraka gustokoena?
- 2- Dantza egiteko abesti bat?
- 3- Hondartza ala igerilekua?
- 4- Uda pasatzeko toki bat?
- 5- Izozki gustokoena?

Elkarrizketa dibertigarri
hau ...eta kitto! Euskara
Elkartearen
Tik Tok kontuan duzue!



SOUHAIB HARRAK

- 1- Mailua
- 2- Muntahim edo horrelako izenburua duen abestia
- 3- Biak
- 4- Hondartza eta igerilekua
- 5- Banilla zaporekoa




JUNE RUIZ

- 1- Dragoia
- 2- Tarara
- 3- Igerilekua
- 4- Ibiza
- 5- Banilla zaporekoa



ADAM BENSELLAM

- 1- Autokotxeak
- 2- Itzuli dira
- 3- Igerilekua
- 4- Hondartza
- 5- Txokolate zaporekoa



LUCIA HERRERA

- 1- Igela
- 2- Edozein
- 3- Igerilekua
- 4- Lagun batekin Almeriara joatea
- 5- Magnum zuria



URKIZU

Maiatzeko 3. astean, ikasturtero bezala, kulturartekotasun astea ospatu genuen gure eskolan: Sonakay musikariaren bisita jaso genuen, Porrotxekin egun berezi batez gozatzeko aukera ere izan genuen ikasle, irakasle eta gurasook, eta, kulturartekotasun egunean, dantza, herri kirol eta kanta saioak izan genituen. 5. mailakoak Otxandixora joan ziren orientazio tailer bat egitera. Interesgarria izan zen benetan! Horrez gain, surf ikastaroa egitera ere joan ziren Debara. Ikasleentzat esperientzia paregabea!




ARRATEKO ANDRA MARI

Aipamen berezia egin behar, aurten LH6 mailakoek Guggenheim museoan parte hartu duten ekintza bati: hainbat ikastetxek artelanen proiektu bat aurkeztu ondoren, bakar batzuk aukeratuak izan dira eta horien artean geu. Hau horrela, ikasturtean zehar, lan hori egiten aritu dira Manu Muniategiandikoetxea margolariaren laguntzaz; artelan honen erakusketaren inaugurazioa ekainaren 10ean izan zuten Guggenheim museoan. ZORIONAK!!! Artelan hau uda guztian zehar egongo da ikusgai Guggenheim museoan ikusi nahi duenarentzat. Animatu eta joan ikustera!!!

ITURBURU

Iturburuko 6. mailako ikasleak Arrikutzeko kobazulora joan ziren maiatzean, inguruneke arloan. Historiaurreko Paleolitoa landu dute eta kobazulo horretan garai bereko aztarnak daude. Kobazuloa Oñati eta Arantzazu artean dago eta, iritsi bezain pronto, lau taldetan banatu eta txandaka sartu ziren kobazuloan, eta ondoren bi tailer egin zituzten: batean, bertako artea eszenifikatuz, Paleolitoan erabiltzen zituzten margoekin marrazkiak egin zituzten, bertako animaliak batez ere. Eta bigarren tailerrean sua egin zuten. Primerako eguna eta betirako oroitzapena.





AMAÑA

Ekainaren 6an Amaña Eskolako ikasturte amaierako jaialdia ospatu genuen Unibertsitate Laboralean. HH eta LHko ikasleek dantzen bidez agurtu zituzten 6.mailako ikasleak. Horrez gain, zozketa bat ere egin zen jaialdiaren amaieran, Amañako dendari eta tabernarien laguntzarekin. Benetan festa polita izan zen! Mila esker parte hartzaile guztiei! Eta opor onak pasa!!



LA SALLE

Gure ikastetxean Euskal Astea ospatu genuen, Matxin kukua bueltatu zen eta berarekin batera egunerokoan euskara indartzen lagundu diguten hainbat pertsona. Ondoren, La Salle Astea eta bere Joku Olinpikoak, bakoitiak eta bikoitiak, emozioa gainezka eta giro izugarria eskolako patioan, beti bezala. Azken boladan, Euskaraldia eta Tantanez Tantan izan ditugu, LH2. mailako Superakeen laguntza bereziarekin eta hainbat irteera eta esperientzia berri ere bai: Basondon, animaliak ezagutzen, Gorozika eta Hondarribiko barnetegietan, egun ahaztezin batzuk igarotzen...



SAN ANDRES

Maiatzaren 20an, gure eskolako 2. mailako SUPER AKEEK, dotore-dotore jantzita euren kapa urdinarekin eta txaparekin, Portalean egin zen ekitaldian parte hartu zuten. Bertan, Eibar gure herria hobetzeko eta euskararekin bete behar duten misioa familiei zabaltzeko zieten. Maiatzaren 23an ere, Tantanez Tantan egunean, Urkizuko iturrian urez betetako gantxilla azkeneko zatitik Untzagaraino eraman zuten.



ALDATZE

Aldatzeko 3. eta 4. mailako ikasleok egun zoragarria igaro genuen Getarian. Txangoan zehar, Balenciaga Museoa bisitatu genuen, non Cristobal Balenciaga diseinatzaile getariarraren bizitza eta lana ezagutzeko aukera izan genuen. Oso bitxiak eta politak iruditu zitzaizkigun bere jantziak! Moda-diseinura gehiago gerturatu gintuen tailer txiki batean ere parte hartu genuen. Amaitzeko, eguraldia lagun, herriko kaleetan ibili ginen eta itsasoa ikusteko aukera ere izan genuen. Oso gustora aritu ginen eta esperientzia polita bizi izan genuen!





BANAKIXAN BANAKIXALA



Aries

martxoak 21-apirilak 20

Badatoz oporrak!!! Eta ondo merezitakoak gainera! Lan asko egin duzu urte osoan eta orain merezi duzu atsedena. Hori bai, sanjuanetan adi diruarekin, bestela dena gastatuko duzu-eta.



Leo

uztailak 21-abuztuak 20

Udako opor zoragarriak dituzu zain. Nahi duzuna egiteko denbora pillabatzat izango duzu, hondartzara joan, mendian ibili, familiaren herria bisitatu, siesta amaitezinak egin... Gozatu, merezi duzu-eta!



Sagittarius

azaroak 21-abenduak 20

Datozen asteotako zure zenbakia 7 izango da, kolore gorriak zortea ekarriko dizu, animalia zaldia eta asteko egunik onena asteartea. Hondartzara bazoaz kontuz itsas trikuekin, arantza finak dituzte-eta.



Taurus

apirilak 21-maiatzak 20

Kasu egin didazu eta, apur bat bada ere, erlaxatu zara. Zure buruak eta ingurukoek ere eskertuko dute. Orain gozatu oporretan, merezi duzu-eta! Bestalde, mugikorrari orduak kendu, mesedez.



Virgo

abuztuak 21-irailak 20

Ikusten? Azkenean zuk hartu duzu ezustekoa. Beti besteei egiten eta oraingoan zuri tokatu zaizu! Susto ederra hartu duzu, baina txantxa bat besterik ez da izan. Zuri egitea gustatzen ez zaizuna...



Capricornius

abenduak 21-urtarrilak 20

Eguzkitako krema, argi eta garbi ulertzen da eguzkia hartzeko krema dela. Eta bai, badakit nazka apur bat eman dezakeela azalean krema emateak baina pentsa zenbat babesten zaituen, emazu behingoz!



Gemini

maiatzak 21-ekainak 20

Ai Gemini, maitea... Inoiz baino finago zabilta! Logela txukuna, arropa jasota, motxila ordenatu-ordenatua... Horrek ekarriko dizu saria, egon adi. Kontuz litxarreriekin, zaindu zaitetz apur bat.



Libra

irailak 21-urriak 20

Luzeegiak egingo zaizkizula udako oporrak?? Egun larregi? Denbora libre gehiegi? Baina entzuten ahal duzu esaten ari zarena?? Pentsatu nahi dut txantxetan ari zarela... Azkenean motz egingo zaizkizu, seguru!



Aquarius

urtarrilak 21-otsailak 20

Zure zeinuari kaso eginez, itsas gizaki bihurtuko zara datozen hilabeteotan, lurlean baino denbora gehiago emango duzu uretan: itsasoan, igerilekuan... Zaindu zaitetz eta astakeriarik egin gabe, entzun?



Cancer

ekainak 21-uztailak 20

Sanjuanak iristeko desiatzen zeunden eta iritsi dira! Zoragarri pasako duzu, barraketan, suak ikusten, txarangekin, antzerkiarekin... Eta badakizu, gauza txar guztiak bota eta erre San Juan suan.



Scorpius

urriak 21-azaroak 20

Hilabete zoragarriak dituzu aurretik, inoiz baino alaiago eta lasaiago egongo zara eta horrek oso erakargarri bihurtuko zaitu. Begiratu ondo ingurura, baten bat liluratuta izango duzu-eta.



Piscis

otsailak 21-martxoak 20

5 zenbakiak zortea ekarriko dizu datozen asteotan, zure kolorea urdina izango da eta animalia txerria. Noiz helduko diozu bazterrean ahaztuta duzun liburu horri? Bada ordua e?



Chelo amama eta Noa eta Erik ilobekin elkartu gara Urkizu eskolan. Solasaldi polita izan dugu eurekin eta hau izango da aurtengo ikasturteko azkena. Espero dugu zuen gustukua izatea.

Zein musika gustatzen zaizu?

C: Nino Bravo, Perales eta antzekoak.

N: Pop musika

E: Quevedo.

Zein duzu jatekorik gustukuena?

C: Arrautza patatekin.

N: Makarroiak gaztarekin.

E: Dilistak.

Zer ez zenuke sekula jango?

C: Gulak eta salmoia.

N: Salmoia.

E: Letxuga.

Zein albiste entzutea nahiko zenuke?

C: Gerrak amaitu direla.

N: Munduan ur faltarik ez dagoela.

E: Lapurrik ez dagoela munduan.

Definituz zaitezte elkarri:

C: Noa oso zintzoa da; Erik oso mugitua.

N: Amama Chelo jatorra da.

E: Oso amama ona da.

Zein herrialde bisitatuko zenuke?

C: Bat ere ez, hemen oso ondo bizi naiz.

N: New York eta Australia.

E: Txina eta Japonia.

Zer kenduko zenuke gizartetik?

C: Politikariak eta politika bera.

N: Gaixotasunak.

E: Animalien kontrako tratatu txarrak.

Zerk ematen dizu beldurra?

C: Bakardadeak.

N: Leku txikiek.

E: Altuerak.

Zerk pozten zaitu?

C: Bilobek.

N: Familiak eta maskotek.

E: Animaliek.

Zer hiru gauza eramango zenituzke irla batera?

C: Irratia, jatekoa eta arropa.

N: Kanpin-denda, jatekoa eta arropa.

E: Metxeroa, jatekoa eta arrantzarako kanabera.



Gora San Juan jaiak!

Ikasturteari agur esan eta jai-giroan hasiko ditugu oporrak. Izan ere, San Juan jaiez gozatzeko aukera izango dugu datozen egunotan eta, horretarako, demaseko egitaraua prestatu dute.

Hona hemen jaietako egitaraua:

EKAINAK 23, astelehena

12:00: Untzagan, kuadrillak bildu, eta Ustekabe fanfarrearekin kalejira Urkizuraino.

13:00: Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei, eta kalejira Untzaga plazaraino.

13:30: Udaletxetik, pregoia eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.

15:30ak arte: Kalejira Ustekabe fanfarrearekin.

17:00 - 20:00: Untzagan Klarion tailerra: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, Lekim Animazioaren eskutik.

17:30 - 20:30: Bizikleta plazan, umeentzako puzgarriak.

19:00: Urkizutik, Lizarrako erraldoi eta buruhandien eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira.

19:00: Untzaga plazan, "La última y nos vamos" kale antzerkia Trapu zaharra konpainiarekin.

19:30: Untzagatik abiatuta, kalejira Irulitxa fanfarrearekin.

20:00: Bizikleta plazan, Txokolatada umeentzat.

22:00etan, Untzagan (grada aldetik) Danborradaren irteera, USTEKABE txarangaz lagunduta.

23:15: Untzagan, Nele Dantza - Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia.

23:30: Untzagan, San Juan Sua, ...eta kitto! elkartearen eskutik.

00:00: Untzagan (Udaletxe plazan) San Juan Kantua eta jarraian Danborradaren Alardea, USTEKABE txarangaz lagunduta.

EKAINAK 24, martitzena

11:30 - 14:30: Untzaga Plazan, "Juegos gigantes" jolas parkea, Kulturmagik taldearen eskutik.

13:30 - 14:30: Untzaga plazan, "El gran Braulio" kale antzerki familiarra, Adrian Conde antzerki taldearen eskutik.

18:00: Errebal plazian, V. San Juan City secrets, makro-



ginkana kuadrillentzat, Itzamnaren eskutik. 2013 baino lehenago jaiotakoentzat.

18:00: Zuloagatarren parkean, "DJ Xaibor" dantzaldia Xaiborrekin.

19:00: Urkizun abiatuta, Umeen Danborrada, Ustekabe fanfarrearekin.

19:30: Zuloagatarren parkean, Txokolatada umeentzat.

20:00: Bizikleta plazatik abiatuta, kalejira LATUNA BANDO fanfarrearekin.

20:30: Untzagan, umeen pregoia, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea.

22:00: Erromerixa Untzaga plazan, Jainaga eta Narbairaren eskutik.

23:30: Soka Dantza Untzaga plazan, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearekin.

00:00: Suzko erroberak Global Foc SL Pirotecniaren eskutik.

EKAINAK 25, eguaztena

11:30 - 14:30: Untzaga plazan, "Haurrentzat jolasak" (arto bilketa lasterketak...) "LEKIM Animazioak" konpainiaren eskutik.

11:30 - 14:30: Untzaga Plazan, "Jolas mitologikoak" jolas parkea, JOKAI taldearen eskutik.

17:30 - 20:30: Bizikleta plazan, umeentzako puzgarriak.

18:15: Urkizutik, Iruñako Buztintxuri Erraldoi Buruhandi eta Dultzainero taldea eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira.

19:00: Zuloagatarren parkean, "Artilusio" kale antzerki ikuskizuna Markeliñe konpainiarekin.


19:30: Untzagan, Euskal Jaialdia, ...eta kitto! Elkarateak antolatua.

20:00: Zuloagatarren parkean, Txokolatada umeentzat.

21:30: ONCE UPON A TIME IN UNTZAGAN kontzertua Eibarko Musika Bandaren eskutik.

23:00: Suzko erroberak Pirotecni Vulcanoren eskutik.

11 DESBERDINTASUNAK



HIZKI-ZOPA


NI HANDIA NAIZENEAN
..... BEZALA LAN EGINGO DUT

S	J	K	I	R	A	K	A	S	L	E	T	A	O	E
U	I	M	O	N	J	K	R	T	H	U	T	L	D	R
H	D	L	X	I	M	J	X	T	U	J	R	B	J	I
I	T	J	E	Z	S	E	L	N	M	O	P	A	I	Z
T	N	K	X	A	R	U	K	X	G	E	D	I	R	A
Z	A	R	T	H	P	Z	E	A	I	D	O	T	I	I
A	N	S	Z	I	I	A	H	B	N	A	R	A	N	N
I	K	T	J	S	A	L	I	G	E	I	Z	R	H	
L	T	H	O	X	Z	K	R	N	K	P	K	I	A	T
E	P	O	L	I	Z	I	A	B	T	S	P	O	P	O
I	R	P	R	S	T	O	G	I	O	Z	O	B	L	P
H	A	L	J	A	I	H	A	I	I	R	A	R	T	H
L	T	K	T	A	Z	X	R	H	X	Z	K	I	S	G
T	J	R	H	S	E	N	D	A	G	I	L	E	L	O
S	Z	A	S	G	N	O	L	S	U	H	E	K	R	E

- SUHITZAILE
- ROLIZIA
- IRAKASLE
- MEKANIKO
- ILEAPAINTZAILE
- SENDAGILE
- ERIZAIN
- ALBAITARI



LABIRINTOA



ARGITU ESALDIA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100



A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓
⊕	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓	↓
⊕	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗	⊗



LEHIAKETA

7 DESBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **UZTAILAK 11** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarteak - Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa LIZAR, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Liburua eta ...eta kitto!-ko bisera zuretako! ZORIONAK!

**Gurpiltxorik gabe ibili nahi dut! 6 urtetik aurrera**

Unai ez da jada zapaburu bat, eta ikasi du bizikletan ibiltzen. Hala ere, ez dago pozik. Gurpiltxorik gabe ibili nahi du, eta orekari eutsi Goñi jauna bezala, ongi baitabil egunkaria besapean daramala ere, edo Etxabe andrea bezala, erosketa eramanda ere ez baita erortzen, edo Felix postaria bezala, hirian barna banatzen baititu gutunak... Baina gurpiltxorik gabe ibiltzeko, nahi izatea ez da aski, nork lagundua ere izan beharko du.

**Mendi Beltzeko munstroa 8 urtetik aurrera**

Zoe, neskatilak, eta Zank, bere txakurrak, gure txirrindulariek Euskal Herriko Itzulian bezainbat mendate, muino eta bihurgune gainditu beharko dituzte helmugara iristeko. Abentura itzela!

**Harrikolore 10 urtetik aurrera**

Maddalen, Maitane eta Ziortzak kolore askotako harri distiratsu bat topatuko dute. Gizon eta emakume bat jarraika hasiko zaizkie harribitxia dela-eta. Zergatik? Tartean, Owenek, Bretainiatik oporrak pasatzera etorritako bizilagunak lagunduko ditu. Berak ez daki euskaraz. Bretoieraz hitz egiten du. Nola hitz egin harekin? Nola komunikatu? Harriak misterio bat gordetzen du bere baitan eta haien bizitza arriskutan jarriko du.

**BITXIKERIAK**

Munduan 10.000 tomate mota baino gehiago daude.



Trikuek 5.000 eta 7.000 arantza artean izan ditzakete. Aix!

Urtean 1.400 amets ditugu batez beste.



IRKO ETA LAGUN BERRIAK

Bazen behin Irko izeneko ume bat, 8 urte zituen eta Bartzelonakoa zen baina Eibarren bizi zen bere familiarekin. Irkori matematika eta plastika ikasgaiak asko gustatzen zitzaizkion, baina gainerako ikasgaietan ez zuen lanik egiten. Etxean margotzea gustatzen zitzaion.

Amañako eskolara joaten zen Irko, bertan, oso gaizki portatzen zen, lagunei zirikatzen eta jotzen aritzen zen. Horregatik, inork ez zuen Irkorekin jolastu nahi.

Egun batean Irko paseatzen mendira joan zen, gailurrean zegoela, behera txiribuelata jeistea dibertigarrea izango zela pentsatu zuen. Horrela, ziztu bizian eta menditik bueltara jeisten hasi zen. Bidean, ordea, zuhaitz handi baten enborraren kontra kolpatu zen.

Negarrez, eskolara itzuli zen eta eskolan inork ez zion kasurik egin. Irko oso gaizki sentitu zen. Patioko banku batean eseri zen eta ikasle berri bat bere ondoan jarri zen.

- Zer gertatzen zaizu? -galdetu zion ikasle berriak.

- Mendian behera nindoala, zuhaitz baten kontra jo dut. Izugarrizko kolpea hartu dut eta inork ez dit galdetu ondo nagoen. Horregatik, triste sentitzen naiz.

- Lasai, ni hemen nago zurekin eta zure laguna izatea gustatuko litzaidake. Nahi duzu nire laguna izan?

- Bai, noski! Nola izena duzu?



- Ilargi dut izena!

Handik aurrera Ilargi eta Irko lagunak izan ziren, eta Irkok lagunak zaintzen ikasi zuen. Horrela, beste lagun guztiak ere errespetatzen hasi zen eta lagun talde handi bat izatea lortu zuen.



ZU BAI MARGOLARI!

